

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI), 2008KO EKAINA

Euskal Autonomia Erkidegoko industri jarduera %5,3 jaitsi da 2008ko ekainean

2008ko lehenengo sei hilabeteetako beherakada %0,2koa izan da, 2007ko lehenengo sei hilabeteen aldean betiere


EUSTATen datuen arabera, eta lan-egutegi homogeneousari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko industri produkzioa 2007ko ekainaren aldean %5,3 jaitsi da 2008ko ekainean. Datuak aztertzean kontuan izan behar da garraiolarien grebak eragin handia izan duela ekaineko lehenengo hamabostaldian; are gehiago, gertaera horrek enpresa handi batzuen ekoizpena eten du aldi horretan.

Aurreko hilaren, hau da, 2008ko maiatzaren aldean Euskal Autonomia Erkidegoko industri produkzioa %1,4 gutxitu da baina estazionalitate-ondorioak zuzendu ostean.

2008ko lehenengo sei hilabeteetako balantzea Industri Produkzioaren Indizearen beherakadarekin itxi zen, aurreko urteko sei hilabete berberen aldean %0,2 jaitsi baita.

1. grafikoa. Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhilabetea

% hazkundea



Iturria: Eustat

Sektoreen arabera bilakaera

Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusienak sailkatu ostean, 2008ko ekaineko indizearen bilakaera jaitsi egin da sektore guztietan, 2007ko ekainaren aldean: ekipamenduko ondasunak %1,4 jaitsi dira, tarteko ondasunak %5,9 jaitsi dira, energia %0,8 jaitsi da eta kontsumo-ondasunak %14,2; azken hauen beherakada, kontsumo-ondasun iraunkorrek (-%22,3) eta kontsumo-ondasun ez iraunkorrek (-%10,6) izandako beherapenen ondorioz eman da.

2008ko ekaineko hil arteko aldaketak, 2008ko maiatzaren aldean, negatiboak izan dira industriako sektore handi guztietan. Salbuespen bakarra ekipamenduko ondasunen sektorea izan da, honek %0,3 egin baitu gora. Tarteko ondasunak eta energia %0,6

jaitsi dira, bi kasuotan; bestalde, kontsumo-ondasunak %3,5 jaitsi dira, kontsumo-ondasun iraunkorrak (-%2,2) eta kontsumo-ondasun ez iraunkorrak (-%3,9) behera egin dutelako.

Lurralde Historikoen arabera bilakaera

Lurralde historikoen arabera, Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaerak negatiboak izan dira hiru lurralde historikoetan: Araban %6,9 jaitsi da eta Bizkaia eta Gipuzkoan, bietan, %4,9.

Lurralde guztietan eman da hil artean (2008ko maiatzetik ekainera bitartean) bilakaera negatiboa; Araban hil artean %3,0 jaitsi da, Gipuzkoan %1,6 eta Bizkaian %0,4, denak aldi horretan betiere.

Taula: Ekaina 2008. Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzio Indizearen Aldakuntza-tasak (%)

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	Eka08/Eka07	At/At-1 (1)	Eka08/Mai08	Mai08/Api08
Indize orokorra: Euskal AE	-5,3	-0,2	-1,4	-3,0
Araba	-6,9	-1,2	-3,0	-3,5
Bizkaia	-4,9	0,3	-0,4	-2,5
Gipuzkoa	-4,9	-0,1	-1,6	-3,3
Indizeak helburu ekonomikoa- Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	-14,2	-5,4	-3,5	-6,4
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-22,3	-12,3	-2,2	-14,0
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-10,6	-2,3	-3,9	-3,2
Ekipo-ondasunak	-1,4	0,3	0,3	-3,7
Bitarteko ondasunak	-5,9	0,1	-0,6	-1,6
Energia	-0,8	3,9	-0,6	0,2

(1) t urteko urtariletik azken hileraren arteko metatutako aldiaren urtetik urterako aldaketa-tasa da, t-1 urteko aldi berberaren aldean.

Iturria: Eustat

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/spanish/indice.asp